



400 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte larunbatean Sortuk deitutako manifestazioan. ENERITZ MAIZ

Hondakinen, terrazen eta azoken tasak ez dituzte kobratuko

Tolosako azken osoko bilkuran onartu dute hainbat tasa ez kobratzea; etxetik lan egiteko eta aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudiak sortzea ere onartu dute // 2

«Poliziaren jazarpena» jasan dutenei laguntza eskainiko die Anoetako Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladak salatu duenez, poliziaren presentzia azken asteetan «areagotu» egin da; behar dutenei aholkularitza juridikoa eskaintzeko prest daudela azaldu dute // 3

19. postua eskuratu du Imanol Rojok, Munduko Txapelketan

Munduko txapelketa batean lortu duen emaitzarik onena da; bihar jokatu du hurrengo proba Alemanian burutzen ari den txapelketan // 7

Maialen Muñoz 46. izan da Espainiako Kros Txapelketan

Tripako mina eta barea tarteko asko sufritu zuela esan du, eta aurreikusitako gogorragoa izan zela proba; taldeka seigarren postua eskuratu dute // 7

Torturatuaren aitortza eta erreparazioa eskatu du Sortuk

Lasa eta Zabalaren inguruan argitaratu den azken elkarrizketaren harira, ehunka herritar atera dira kalera, Sortuk deituta; «bakoitzari dagozkion ardurak onartzeko unea da», esan dute // 4

Era berezian ospatu dute '(H)ari Naizela' saioa 200.era iritsi dela

Ataria Irratiko bertsolaritzari buruzko saioaren kopuru borobila 'Uhinak' bertso saio berezia eginez ospatu dute, Villabonako Gurean // 5



Ostiral arratsaldean izan zen 'Uhinak' bertso saioa, Villabonako Gurean. I. SAIZAR

ATARIA IRRATIAN

KOLABORATZAILEAK BEHAR DIRA, SAIO LIBREAK EGITEKO.

Astero, bi astez behin edo hilabetean behingo saioak (aukeran) Banaka, binaka... Animatu eta sortu zure saioa!

HARREMANETARAKO: 943 65 56 95 / ATARIA@ATARIA.EUS

Hainbat tasa kobratu gabe uztea erabaki du udalak

Hondakinen, terrazen eta azoken tasak ez ditu kobratuko; etxetik lan egiteko araudia eta aldi baterako lan poltsak kudeatzekoa sortzea ere onartu du

Josu Artutxa Dorronsoro

Larrialdi egoera ezarri zenetik urte bat beteko da laster eta oraindik ere ugariak bezain larriak dira egoera honen eraginak. Epe honetan, hainbat neurri hartu ditu Tolosako Udalak, ondorioak arindu asmoz. Adibidez, 1,3 milioi euroko *Suspertu Tolosa* plana garatu zuen iaz, herrian kontsumitzeko bonuak eta diru laguntzak emateko.

Aurten ere, neurri gehiago hartuko ditu udalak, krisiari aurre egin eta Tolosako hiri ekonomia babesten jarraitzeko. Otsailko osoko bilkuran aho batez onartu zen hondakinen, terrazen eta azokaren tasak %100ean ez kobratzea. Hondakinen tasaren kasuan, dende, tabernek, jatetxeek, bidai agentziek eta elkarte gastronomikoek izango dute hobaria. Halaber, ostalariei ez zaie tasarik kobratuko terrazak erabiltzeagatik, ezta azokako ekoizleei ere, postua jartzeagatik eta espazio publikoaren erabilereagatik.

Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko zinegotziak, bere aldeetik, pandemiaren ondorio ekonomikoak arintzeko bide berriak aztertu direla dio; «izan ere, iaz ezarritako laguntzak ez zitzaiz-

kien espero bezala iritsi behar handiena zuten kolektiboak». Era berean, adierazi du «bere jardueran eragin handiena izan duten sektoreak baztertzeko» ahallegina egin dutela, «hobariak sektore horietan zentratzeko».

BI ARAUDI BERRI

Bestelako gaiak ere izan ziren azken bilkura horretan. Udala garai berrietara egokitzen jarraitzeko apustuan, udal langileek modu ez-presentzialean, hau da, telelanean jarduteko araudia ere onartu zuten. «Eraldaketa digitalari eta administrazio publikoen modernizazio prozesuei lotuta dago. Langileek gehienez ere astean bi egunetan aritu ahal izango dute modu horretara lanean, sail guztien presentzialtasuna ziurtatzeko, eta herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea bermatzeko», azaldu du Xabier Balerdi EAJ-ko zinegotziak. Era presentzialean lan egin behar duten zerbitzuak ere zehaztu dira araudian, esaterako, Udate eta Udaltzaingoa.

Oposizioa ordezkariek abstentzioa bozkatu zuten. «Ez da izan telelanean aurkakotasunagatik», dio Kristina Pelaez zinegotziak. «Alarma egoera piztu zenetik EH Bilduren eskaeretakoa bat izan da aukera hori ematea. Eskaera egin genuenetik hilabeteak pasa dira, eta aurkeztutako araudiak, gainera, ez die pandemiak mahai gainean jarritako bestelako beharrei erantzuten, tartean, kontziliazioari, parekidetasunari eta prebentzioari». Bestetik, azpimarratzen du, egungo planteamenduekin,

zehaztu ziren zortzi helburuetatik hiru soilik beteko direla.

Bestalde, udalaren tamainako toki-administrazio baten aldi baterako kontratazio bolumena dela eta, beharrezkotzat jo dute aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia sortzea, kudeaketarako tresna gisa, lan poltsa propioak eratzeko prozesuan garrantasun osoz jarduteko asmoz.

Horrez gain, gizarte zerbitzu publikoen etengabeko hobekuntzaren aldeko apustuan, urtarileko osoko bilkuran etxer-etxeko laguntza zerbitzuaren erregela-menduari hasierako onarpena eman ondoren, gehienezko prezio publiko berria ezartzeko (orduko 15 euro) ordenantza aldaketa egitea onartu da.

Neurri honek hainbat hobekuntza ekarriko dituela azpimarratu nahi izan zuen Xabi Martinez EH Bilduko zinegotziak: «Prezioa baxuagoa izateak zerbitzua bera indartzen du, behar gehien dutenek lehentasunak izango dituzte, eta, bereziki, zaintza lanak merkatu beltzetik ateratzeko prozesuan, pauso bat izan daiteke». Zaintza lanak duintzeko beharra ere azaldu zuen Martinezek, eta zerbitzu hori finantzatzeko jarriko duen diru poltsa behar adinakoa izatea eskatu dio Aldundiari.

Amaitzeko, Emeterio Arrese eraikinean kokatutako udalaren zentro soziokulturala ustiatzeko zerbitzu-kudeaketaren kontratua luzatu dute eta koronabirusaren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, esleipendunak egindako indennizazio eskaera onartu dute.

‘Tolosa Badabil’ mugikortasun plana abian jartzeko prest

J. Artutxa Dorronsoro

Urtarrileko osoko bilkuran, aho batez onartu zen Gea21 taldeak egindako *Tolosa Badabil* mugikortasun jasangarriko plan berria. Herritarren parte hartzearekin gauzatutako dokumentua da, generoaren ikuspegia txertatuta duena. «Plan berriak epe labur, ertain eta luzerako ekintzak jasotzen ditu eta etorkizuneko Tolosa marrazten du, hortaz, datozen urteetan garatuko den plana izango da», diote udaletik. Zortzi eta hamar urte bitarteko epealdia izango du, eta bost urtez behin ebaluatu eta eguneratuko da dokumentua.

Tolosan mugikortasun jasangarria sustatu eta herritarrek erdigunean kokatzen dituen herri ereduaren alde egiteko, 2019an ekin zioten plan berria garatzeari; gainera, mugikortasun mahaia osatu zen, herritar eta eragileekin. «Tolosarren parte hartzearekin osatu da, saio ezberdinen bitartez, herritar guztien iritzi eta ekarpenak jasotzeko». Bestetik, Haurren Hiria eta Eskola Agenda 2030 egitasmoetako nahiak eta eskaerak ere jaso dira.

OINEZKOEK LEHENTASUNA

Bi helburu nagusi ditu mugikortasun plan berriak: ingurumena-

rekiko errespetu handiagoa sustatuko duten eredu berriak bul-tzatzea, eta jasangarritasun iriz-pideak jarraituz, hiriko mugikortasuna hobetzeko ekintzak proposatzea. Dagoeneko udal gobernu hasi da planean jasotako ekintzak gauzatzen, eta hainbat proiektu lehenetsi ditu legealdi honetarako, besteak beste, Zumardi Txikia herritarrentzat berreskuratu eta berdegune bilakatzea, Laskoain kalea, Gernika-ko Arbola eta Gorriti plaza eraberritzea, Larramendi eta Belate artean oinezkoentzako zubia eraikitzea, Hiribus elektrikoa eta kargarako-puntuak ezartzea, bizikletentzako aparkaleku gehiago jartzea eta bidegurutzeetan biribilguneak eta oinezkoentzako pasabide gehiago eraikitzea.

Plan hau erabat estrategikoa dela azpimarratu dute udal gobernutik, «etorkizunean, Tolosa herri atseginagoa, seguruagoa, eraginkorragoa, jasangarriagoa eta berdeagoa izan dadin». Udalarentzat lehentasuna izango dute trantsizio energetikoak eta hiri-mugikortasun jasangarriak. «Proiektu guztiek oinezkoiei emango diete lehentasuna, horien mugikortasuna errazteko urratsak egingo dira eta espazioa irabaziko zaio motordun trafikolari».



Ostalariei ez zaie tasarik kobratuko aurten, terrazen erabilpenagatik. ATARIA

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Ostalaritza. Donostiako tabernajatekx batean zerbitzaria eta sukaldaria behar ditugu. Interesatuak bidali curriculumaren argazkia 747 418 246 telefono zenbakira.

Elkartasuna eta laguntza, «indar polizialaren aurrean»

Anoetako Gazte Asanbladak poliziaren presentzia azken asteetan «areagotu» egin dela salatu du, eta «jazarpena» jasan duen orori laguntza eskaintzea erabaki dute

Eneritz Maiz Etxarri Anoeta

Indar polizialak kanpora lelopean agerraldia egin du Anoetako Gazte Asanbladak, eta azken asteetako «indarkeria poliziala» ugaritu egin dela salatu dute, eta horren aurrean, elkartasuna antolatu eta laguntza eskaintzea dute helburu.

Pandemiaren egoera nabaritzen hasia dela adierazi dute: «Pandemiari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz, atzeraldi ekonomiko larria jasaten ari gara, eta jendartean etsipena eta ezinegon zabaltzen ari dira». Gazte asanbladako kideen ustez, gainera, «azken egun eta asteetan, poliziaren presentzia ugaritu egin da Euskal Herriko herri eta hiri askotan; «poliziak herritarren aurka hartutako jarrrera bortitz ugari ikusi ditugu osasunari aurre egiteko neurriak betearazteko aitzakiapean».

Gazteen hitzetan, «neurri horien helburua ez da, ordea, herritarren osasuna zaintzea, neurri arbitrarioen bidez beldurra eta kontrol soziala zabaltzea baizik». Euskal Herri osoan «presentzia poliziala ugaritu» egin dela esatearekin batera, errepresio hori «herritarren sektore zaurgarrienera zuzenduta dagoela» ikusi dute: «Horien artean, baita gazteengana ere». Gazteen bizkar utzi nahi dutela «beraien inkompetentzi, diru gose eta arduraga-



Anoetako Gazte Asanbladako kideek plazan eskaini zuten agerraldia. E. MAIZ

bekeria guztia», salatu dute. Eta galderak luzatu dituzte: «Akaso lantokietan eta ikastetxeetan ez dira pertsonak kutsatzen? Soilik gazteak elkartzen diren gunee-tan? Tabernetan?».

Esan dutenez, gobernuak «gabezia, hutsune eta inbertsio falta ezkutatu nahi ditu etengabe»; «arazoa ez baita gazteak euren lagunekin elkartzea trago batzuk hartzeko. Arazoa ospitaleetan dauden gabeziak dira, osasun langileak bizitzen ari diren lan karga eta baliabide falta, garraio publikoak leporaino beteta joatea, egoera kontrolatzeko neurri eraginkorrak ez hartzea...», diote. Horrez gain, gobernuak, «kaleen militarizazioaren eta komu-

nikabideek etengabe bidaltzen dituzten mezuei esker, beldurra hedatu du gizartearen», azpimarratu dute; «eta etsaitasuna eta mesfidantza areagotu ditu», gaineratu dute.

«KONPLIZITATE ESKE»

Erakundeek gazteen aurkako kriminalizazioa «hauspotu» egin dutela etengabe uste du Anoetako Gazte Asanbladak. «Gazteok egoeraren erantzule egin gaituzte, eta horrek herritarren arteko liskarrak eta gaizki ulertuak sortzera garamatza», salatu dute. Hau guztiagatik, «konplizitatea eskatu nahi dizuegu herritarroi, eta jazarpen polizial kasuren bat ikusiz gero, salatu eta graba-

tzea», eskatu dute. Era berean, «kriminalizazio hori lehen pertsonan bizi duten guztiei» babesa adierazi diete.

Anoetako Gazte Asanbladako kideek egoerak luze joko duela oraindik diote, eta «poliziak in-punitate osoz jardungo duelakoan» dira. Honenbestez, «elkartasuna antolatzea besterik ez zaigu geratzen», adierazi dute. «Egoera honen ondorioz isun edo jazarpena jasan duen orori laguntza eskaintzea erabaki dugu». Hori dela eta, anoetakogazteasanblada@gmail.com helbide elektronikoa jarri dute eskura, egoeraren berri eman eta beraiek aholkularitza juridikoa eskainiko diote laguntza behar duenari.

Zaldibarren inguruko 'Zona Cero' hitzaldia, ostegunean

IBARRA // Hauspoa kultur elkar-teak antolatu du Zaldibar, Zona Cero hitzaldia, Ibarako Udala-ren laguntzarekin. Horretarako, Ahoztar Zelaieta gonbidatu dute, hitzaldiaren izen bereko liburua-aren egilea, eta Zaldibarren gertaturikoaren inguruan ariko da. Hitzaldira joateko aurrez izena eman beharko da kultur etxean. Hitzaldia ostegunean da, 18:30ean, kultur etxean.

Izena eman behar da 'Irrien lagunak 10 urte!' ikusteko

IKAZTEGIETA // Irrien lagunak 10 urte! ikuskizuna eskainiko dute, ostiralean, 17:00etan, Ikaztegi-tan. Adin tarte guztietako ume-entzat egokia da, eta alde zurre-tik izena eman beharko da uda-letxeko 943 65 33 29 telefono zenbakira deituta. Ume eta gu-rasok eman beharko dute izena osteguna bitartean, eta ezarrita-ko babes neurriak errespetatu beharko dira. Plazan izango da, baina euria bada kiroldegian.

Euskal Azokan postua jartzeko izena eman behar da

IKAZTEGIETA // Ikaztegi-tako Kultura Batzordea Euskal Azoka antolatzeko lanean ari da. Apiri-laren 25ean izango litzateke, eta herritarrek ere beraien produk-tuak saltzera animatu nahi di-tuzte. Postua jarri nahi duenak izena eman beharko du udale-txean martxoaren 12a baino le-hen, eta zer eskainiko duen ze-haztu beharko du.

Santio jaietako egitaraua ez prestatzea erabaki dute

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Jai Batzor-deak aurtengo Santio jaiak bere horretan ez antolatzea erabaki du. Pasa den asteazkenean egin zuten bilkura, eta ohiko jai egita-raua prestatzeari uko egitea era-baki zuen aho batez. Ondorioz, aurtengoan ere Santio jairik ez dela izango baieztatu daiteke da-goeneko.

«Erabaki hau hartzea zaila eta

mingarria izan bada ere, bizi du-gun osasun egoerak ez du ahalbi-detzen gure herriko jaiak betiko moduan antolatu eta ospatzea eta erantzukizunez jokatzeko jarraitu behar da», adierazi dute jai batzordetik.

Hala ere, eta pasa den urtean egin zuten moduan, uztailean zehar kultur ekitaldien egitarau zabal bat antolatzeko urratsak ematea erabaki dutela aurreratu dute. Gehienbat kalean eta aire

librean garatuko liratekeen eki-taldiak izatea dute helburu.

Parte hartzea bultzatu nahi dute, eta herritarrek eta elkarte-ek proposamenak aurkezteko bi-deak zabaltzea erabaki du Jai Ba-tzordeak. Proposamenak helarazteko mezu bat idatzi daiteke kultura@villabona.eus helbide elektronikora.

Jai Batzordeak biltzen jarrai-tzeko asmoa du, eta apirilean bi-garren bilkura bat egingo du.

Ibarra, berriro ere, eremu gorrian sartu da

Erredakzioa

Ibarra eremu gorrian sartu da. Izan ere, 789koa da azken hama-bost eguneko intzidentzia tasa, 23 positibo batu dira bertan az-ken zazpi egunetan, eta 561eko tasa du Ibarako osasun ere-muak. Ondorioz, gaurtik bertako herritarrek ezingo dute herri-tik atera, eta eskola kirola ere debe-katuta egongo da.

Gainerakoan, eskualdeko as-

teburuko datuei dagokienean, Tolosan 13, Ibarren 3 eta Oren-dainen, Amasa-Villabonan eta Zizurkilan positibo bana atze-man dituzte, ostiraletik igandera eginiko test diagnostikoetan.

5.000 biztanletik gorako es-kualdeko herrien kasuan, Tolosa (139) eta Amasa-Villabona (65) kolore horian daude.

Ospitaleen egoerari begiratu-ta, COVID-19aren ondorioz 120 pertsona ZIU-n daude.

«Bada garaia tortura eta gerra zikina aitortzeko»

Sortuk deituta ehunka herritar atera dira kalera Tolosan, Lasa eta Zabala herrikideei buruz argitaratu den azken elkarrizketaren harira

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Sortuk Aitortza, *erreparazioa*. Ez errepikatzeko bermea! lelopean manifestazioa egin du asteburuan. Tolosako Sorturen arabera, 400dik gora pertsonak parte hartu zuten manifestazioan, eta manifestazioa udaletxe aurrera iritsi ahala, pasa den astean zabaldu zen audioa jarri zuten, berriro entzuteko. «Berriz ere, hitz hauek entzutean, barrenak mugitu zaizkigun honetan, lehenik eta behin gure besarkadarik sentikorrenak tortura, gerra zikina eta estatu terrorismoaren atzaparrik beltzena pairatu duten eta duzuen guzti-guztiei», esanez hasi zuen agerraldia Haimar Altuna Sortuko ordezkariak. Eta bereziki, «tortura basatiak jasan ondoren, heriotza bera pai-

ratu zuten hamalau euskal herritarren senideei». Azken argitalpenak «berriz ere mina eragin digu», nabarmendu zuen, «min handia». Lasa eta Zabala zuloak eginarazi zizkieten: «Askori hotzikara izugarriak eragin dizkigu Guardia Zibilaren mando batek CESIDeko buruari emandako azalpenek eta zehaztasunek. Bai Joxi eta Joxeanen, eta baita Mikel Zabalzaren torturen eta heriotzaren berri entzutean ere». Hemen, Euskal Herrian, «guztiok ondo asko dakigu tortura sistematikoki erabilia izan dela, eta epaitegiek, gehienetan, zoritxarrez, modu interesatuan egon izan diren frogak ezabatu dituztela», adierazi zuen.

«Espainiako erregimenak modu basatian torturatu ditu euskal herritarrak Euskal He-

rrian», azpimarratu zuen. «Eta, guztira hamalau, heriotzara eramateraino tortura zituzten». Gobernuak, alderdiak, polizia ezberdinak, forentseak, epaileak eta hedabideak baliatu izan dituztela horretarako salatu zuen Sortuko kideak: «eta inpunitate osoz, guztia egin ahal izateko eta torturatu ahal izateko».

«EZ AL DUTE EZER ESATEKO?»

Giza eskubideen izugarritzko urraketa eman den honetan, ez al dute ezer esateko?» gaineratu zuen Sotuko kideak, Iñigo Urkullu, Idoia Mendia, Maria Chivite eta Denis Itxasorengana zuzenduz. «Ez al duzue ezer egin behar? Non dago beraz zuen zoru etikoa?». Honekin guztiarekin, «zintzoen eta gaiztoen errelatoa» egin nahi dutela esan zuen. «Ira-

bazleak eta galtzaileak bereizi nahi dituzte, eta bide horretatik, ez goaz inora», azpimarratu zuen. Altunaren ustez, «horrela ezin da inolako bakerik eta askatasunik eraiki. Gatazka politiko honetan, bakoitzari dagozkion ardurak onartzeko unea iritsi da, eta ezker abertzaleak egin du», esan zuen.

Haimar Altunak, «nahikoa» dela esan zuen, eta «beharrezkoa» dela tortura eta estatu biolentzia iluntasunetik argitara ateratzea. «Min hori jasan dutenek aitortza eta erreparazioa behar dituzte, eta horrez gain, berriro ez errepikatzeko bermeak behar dituzte».

«Hori guztia behar du herri honek, eta etsi gabe, lanean jarraituko dugu», azaldu zuen Haimar Altunak.



Ehunka pertsonak hartu dute parte Tolosako manifestazioan. E.M.E.

Anabel Egues Asturiasera gerturatuko dutela iragarri dute

Elduaindarrari bigarren gradua ere eman diote; Egues gerturatzean ez da euskal presorik geratutako Kordobako espetxean

Erredakzioa Elduain

Elduaingo Anabel Egues preso Asturiaseko espetxera gerturako dutela eta bigarren gradua eman diotela iragarri du Espainiako Espetxe Erakundeak. Anabel Egues Kordobako (Andaluzia) azken preso da, izan ere, abenduan Javier Gallaga eta Igor Portu gerturatu zituzten. Lekualdaketa horiek eta iragarritakoak gauzatzen direnean, beraz, ez da euskal presorik egongo Kordobako espetxean; gaur egun hiru euskal preso daude han, eta hirurei onartua diete lekualdaketa.

Elduaindarrarekin batera Xabier Makazaga eta Eneko Goieaskoetxea Kantabriako El Dueso espetxera lekualdatuko dituztela iragarri dute, eta Ainhoa Barbarin Euskal Herriratu egingo dutela, izan ere, Valentziako Picasentetik Zaballara eramango dute. Era berean, lehen hiru presoek bigarren gradua eman diete, hau da, irteera baimenak lortzeko aukera izango dute asteburuetan edo jai egunetan.



ESKUALDEAK EZ DU SAHARA AHAZTEN

Larunbatean bete ziren 45 urte Fronte Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuenetik. Hori ospatzeko eta beraien borroka aldarrikatzeko elkartu ziren Tolosan, Tolosaldea Sahararekin elkartek deituta, *Maroko Mendebaldeko Saharatik* atlelopean. «Gure herriari ahotsa emateko, borrokalariei ahotsa emateko, errefuxiatuen kanpalekuetan giza laguntzaren menpe bizi direnei ahotsa emateko, Mendebaldeko Saharan bizi diren sahararrei ahotsa emateko» elkartu direla azaldu zuten, «ezin ditugu ahaztu». Bestetik Ibarra *Sahara libre* zikloaren azken ekitaldiari hasiera eman diote asteburuan. Herriko eragile ezberdinen artean, argazki erakusketa bat jarri dute herriko hainbat txokotan. Bost mural prestatu dituzte eta martxoan zehar ikusi ahal izango dira. I.S.A.



Irrati estudio baten gisan, mahaian eserita, mikrofonoa aurrean eta esataria ere begien aurrean zutela aritu ziren lau bertsolariak kantuan. I.S.A.

Ostiral iluntzean, 'Uhinak' bertso saio berezia ospatu zen, Amasa-Villabonako Gurea antzokian, '(H)ari naizela' irratsaioaren 200. saioa ospatzeko

Uhinak ikusi ere egin dira

Irrati Saizar Artola

Ataria Irratiko (H)ari naizela irratsaioaren 200. saioa modu berezi batean ospatu da. Imanol Artola Felix da saio hori gidatzen duena, eta ATARIA-ko irrati estudioan grabatu beharrean, Amasa-Villabonako Gurea antzokia bilakatu zuen irrati estudio ostiral arratsaldean. Bertso saio berezi bat antolatu zuten ATARIAK eta Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneak, eta horrela grabatu zuten 200. saioa. 2016ko urtarriaren 17an lehen emisioa egin zenetik, asteazkenero entzuteko aukera izaten da 107.6 FM frekuentzian, eta asteazkenean, ostiraleko ospakizuna entzuteko aukera izango da.

Oholtzan mahai borobil bat zegoen ertz batean, Felixentzat, eta bere parean, mahai errenka bat, bertsolariarentzat. Hurrenez hurren, Oihana Iguaran, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus eseri ziren mahaiaren atzean, publikoari begira. Izan zitekeen bertso afari bateko eszena, baina ez, irrati estudioa zen. Bakoitzak bere

mikrofonoa zuen aurrean, eta abestu behar zuten aldiro, argitxo gorri bat pizten zitzaien parean, online zeudela ez ahazteko.

Irratia eta, bereziki, uhinak izan ziren protagonista saioan. Gai horien bueltakoa izan zen saioa bera ere, Felix gidari zela. 200. saioari ekiteko, azken boladan galduta zuen sekzio bat berreskuratu nahi izan zuen Felixek: Sutondoko bertsoen sekzioa, hain zuzen. Eskualdeko bertsolari edo bertso zale bati bertso sorta bat egiteko eskatzen dio atal horretan, eta Naiara Arreseigor Harituzeko kideak izan zuen sekzio hori betetzeko papera. Berez, telefono bidez egin ohi duen tartea izaten da, baina, ostiralean, oholtzan bertan izan zuen gonbidatua, aurrez aurre.

Arreseigorrrena ez zen izan saioan zehar entzun zen eskualdeko ahots bakarra. Uhin bidez hartu zuten parte, bertan izan gabe, Ataria Irratian *Eleak eta Beleak* antzerki irratsaioa egiten duen Idoia Gereñuk, Gaztea irrati *Didá* saioa eta ATARIA-ko kolaboratzaile den Julen Telleriak eta Naiz irrati *Bigarren Kafea* irratsaioa Iñigo Asensiok.

Besteren artean, saioan zehar, Julio Sotok Jakoba Errekondo-



Imanol Artola Felix, (H)ari naizela irratsaioa 200. saioa gidatzen. I.S.A.



Oihana Iguaran, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. I.S.A.

ren papera bete behar izan zuen, eta aldamenekoen galdera eta kezkei erantzuten aritu behar izan zuen. Arzallusek uztailaren porru bat landatu zuen, eta ez du oraindik jasotzerik izan; Lujanbio osinaren formularen inguruan galdegin zion, ilbeheran moztuz gero ez omen dela gehiago ateratzen eta depilazioarekin ere ea gauza bera gertatzen ote den jakin nahi izan zuen. Iguarani berriz, kaktusa ito, dutxan goroldioa atera eta orkidea zimeldu zaio, plastikozkoa izanda ere.

**Bertso saio berezia
asteazkenean
entzuteko aukera
izango da, 20:00etan,
107,6 FM frekuentzian**

Bertso saioak telebistaz eman ahal izateko kameralari egiten duten lanaren inguruan aritu ziren, berriz, Arzallus eta Soto. Gaia kokatzeko, (H)ari naizela irratsaioan Luis Gurrutxaga *Hitzetik Hortzera*-ko kameralari irurarrari egindako elkarrizketa zati bat entzun ahal izan zen, bera ere kamera atzean oholtzan zela. Publikoari begira izaten da gehienetan kamera bat, eta bertsoaldiek jendartean sortzen dituzten erreakzioak grabatzen dituzte. Lan horretan aritu zen ostiralean ere Gurrutxaga.

Irratsaioa gidari paperean ere joan ziren bertsoaldi bat baino gehiago. Batetik, Arzallus irrati-ko esatari zela, bere irratsaioa lehiaketetara, saria edozer zela ere, behin baino gehiagotan deitzen zuen beti pertsona berak: Lujanbio. Eta bestetik, Iguaran kultur programa baten gidaria izan zen, eta Arzallus, berriz, futbol esataria. Ostiraleroko Iguaranen irratsaioa geroz eta lehenago amaitzera behartzen dute futbolari lekua egiteko. Hika-mika horretan murgildu ziren.

Umoretik joan zen saioa, giro apalean. Felixen gidaritzapean, punta-puntako bertsolariak (H)ari naizela saioari ere utzi diote bere aletxoak. Gidaritza horrekin jarrai dezala Felixek ere beste denbora askoan uhinetan, Ataria irrati.

ESKER ONAK

(H)ari naizela irratsaioa, Ataria Irratiaren, Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunearen eta Xenpelar dokumentazio zentroaren hitzarmen baten fruitu da eta bertso saio berezia ere elkarlan horretatik sortutako ekimena izan da. ATARIA-tik eskerrak eman nahi zaizkio Amasa-Villabonako Udalari ere saioa antolatzeko emandako laguntzagatik.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

13. jardunaldia

Lauburu Ibarra	3
Laskorain	2

Sailkapena

1. Otxartabe	34p
2. Lauburu Ibarra	31p
3. Juventud del Circulo	22p
4. Auzoak de Zierbena	15p
5. Gora Grupo Iron	15p
6. Kukuyaga Etxebarri	11p
7. Laskorain	8p
8. Castro Urdiales	7p

Hurrengo jardunaldia

Otxartabe (1)

Lauburu Ibarra (2)

Laskorain (7)

Auzoak de Zierbena (4)

HIRUGARREN MAILA

13. jardunaldia

Tolosala	1
Gernikako Lagunak Xaibor	5

Sailkapena

1. Mahastiak Labastida R. Alav.	28p
7. Gernikako Lagunak Xaibor	10p
8. Tolosala	7p

Hurrengo jardunaldia

Mahastiak Labastida R. Alav. (1)

Tolosala (8)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

19. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia	22
Beti-Onak	26

Sailkapena

1. Hierros Servando Eibar	31p
10. Jacar San Antonio	17p
11. Tolosa Eskubaloia	16p
12. Egia	16p
16. Avefor Huesca	2p

Hurrengo jardunaldia

Navarrete (14)

Tolosa Eskubaloia (11)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

12. jardunaldia

Aurrera de Vitoria	2
Tolosa CF	3

Sailkapena

1. Real Sociedad B	31p
5. Oiartzun	14p
6. Tolosa CF	10p
7. Aurrera de Vitoria	9p
8. Arratia	6p

Hurrengo jardunaldia

Oiartzun (5)

Tolosa CF (6)

HIRUGARREN MAILA

19. jardunaldia

Tolosa CF	2
Aurrera	1

Sailkapena

1. Gernika	39p
6. Santutxu	25p
7. Tolosa CF	20p
8. Balmaseda	16p
9. Somorrostro	16p

Saskibaloia

1. MAILA GIZONEZKOAK

9. jardunaldia

Redline Mekanika TAKE	64
Universidad Deusto Loiola	59

Sailkapena

1. Redline Mekanika TAKE	6-1
2. Universidad Deusto Loiola	4-2
3. Leioa	4-2
4. Getxo	5-0

Hurrengo jardunaldia

Aranguren Multibasket (7)

Redline Mekanika TAKE (1)

Lauburuk eraman du derbi parekatua

Belabietan jokaturako neurketa irabazi du Lauburuk, Laskorain 3-2 gaituz

Erredakzioa Ibarra

Lauburu Ibarra eta Laskorainek lehen faseko bigarren derbia jokatu zuten larunbatean, Belabietan. Neurketan hiru puntu baino gehiago zeuden jokoan. Bi taldeek garaipena lortu nahi zuten, bigarren faseko funtsezkoa baita gehitzen jarraitzea. Laubururi beste partida bat bakarrik falta zaio lehen fase honetan eta Laskoraini bi. Derbia parekatua izan zen, baina azkenean garaipena ibartarrentzat izan zen, 3-2ko markagailuarekin.

Neurketako lehen ekintza Lauburuko Iñigok egin zuen, balaioa jokoan jarri eta segundo gutxira jaurtiketa bat eginda. Hortik aurrera, bizkarra irabazi nahian ibili zen Laskorain, ibartarren atera oso azkar hurbiltzeko helburuarekin. Aldi berean, beraien defentsa igotzen zuen gauzak are zailagoak jartzeko.

Ibartarrei dagokienez, Antxon, Zumetak eta Danik izan zuten lehen aukera argia. Hiru biren kontra ateraz, Zumetak Daniri balaioa bigarren zutoinean sartu zion, baina balaioak kanpoan bukatu zuen. Iritsi ziren Laskorainen lehen aukerak ere eta, lehen zati horretako 5. minutuan, Arrak markagailua estreinatu zuen kórner baten ostean jaurtitako tiro bikain batekin (0-



Lauburu Ibarra jokalariek goletako bat ospatzen. GARAZI ARREGI

1). Benetan geldiezina. Ondoren, atsedenaldirako 10:52 falta zela, beste gol bat sartu zuten tolosarrak. Boliri txartel horia aterata, estrategia jokaldi bat ondo gauzatu zuen tiro zuzen batekin Beñatek, talde horiko kapitainak (0-2).

MARKAGAILU ALDAKETA

0-2koarekin, arrisku handia sortzen saiatu ziren Tolosakoak balaio lapurketekin. Oso erosoak sentitzen dira egoera horretan; are gehiago, kasu honetan bezala, markagailuan aurretik zeudela jakinda. Dena den, partida asko geratzen zen aurretik oraindik.

Horrela, atsedenaldirako 6:30 falta zirenean, Iñigoren gola iritsi zen jaurtiketa indartsu bati esker (1-2). Nafarra behin baino gehiagotan saiatu zen jokaldi bera egiten, aldea murriztu ahal izateko. Gol horrek ekarri zuen animoekin batera, aurrerago, atsedenaldirako 1:12ra, Zumetak partida berdindu zuen, bisitariak balaio galdu ostean (2-2). Izugarritzko ekintza egin zuen

Zumetak, lehen zatia itxiz eta bigarren zatia aurre egiteko taldeari funtsezko indarra emanez.

Aldageletatik bueltan, balaioa jokoan jarri eta berehala, Laskorainekoek aukera oso argia izan zuten, Jorgeren atera nagusitasunez iritsiz. Hala ere, Lauburuko atezainak balaioa aldentzea lortu zuen bere ausardia erakutsiz. Ondoren, minutu batzuk baino igaro ez zirenean, ibartarren hirugarren gola iritsi zen Juaristiren eskutik, ezker hanka erabili eta balaioa ate barrura bidaliz (3-2).

Minutuak aurrera zihoazen eta bi taldeek emaitza aldatzeko lanean jarraitzen zuten. Tolosarrak ibartarrak baino apur bat hobeto aritu ziren, berdintzeko zorian egonez. Berritro ere aipagarria izan zen Jorgeren lan esker, ez baitzuen behin ere barkatu eta askotan salbatu baitzuen bere taldea. Markagailua ez zen mugitu azken txistua entzun arte, talde moreak garaipena lortuz. Hori horrela, Lauburuk lehen faseko etxeko partida guztiak poltsikoratu ditu.

Hilberriak eta urteurrenak



Asier Aranguren Errazkin

GURE IKASLE DIREN NAIA ETA XUBANEN AITA

Atsekabe une hauetan gure besarkadarik estuena

Berrobiko eskolako Hezkuntza Komunitateko partaideak

BERROBIN, 2021eko martxoaren 2an



Asier Aranguren Errazkin

Joan-etorriko bidaiak izan dituzu bizibide, errepidea eta kamioia bidailagun. Bidaia berri honetan, goxotasuna eta atsedena opa dizkizugu.

Garbiñen koadrillakoak

BERROBIN, 2021eko martxoaren 2an

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte
hartzen ditugu

Imanol Rojo tolosarrak 19. postua lortu du Munduko Txapelketan



Imanol Rojo, larunbatean jokaturako Munduko Txapelketako skiatloi proban. ATARIA

Orain arte egindako postu onena izan da Rojorentzat Munduko Txapelketa batean

Erredakzioa Tolosa

Alemanian jokatzeko ari den iraupen eskiko Munduko Txapelketan, parte hartuko duen hiru probetatik lehenengoan parte hartu zuen larunbatean Imanol Rojok, 30 kilometroko skiatloian, eta 19. postuan amaitu zuen, orain arte lortu duen posturik onena. «Oso pozik nago lortutakoarekin»,

esan du Rojok. «Lasterketan dena oso ondo joan zen. Klasiko eran hasieran postua pixka bat gehiago kostatu zitzaidan mantentzea, baina geroz eta aurrerago nindoan eta sentazio oso onekin».

Probaren erdia, 15 kilometro, klasiko eran egin behar zen, eta puntu horretara 20. postuan iritsi zen Rojo. Gero, beste 15 kilometro egin behar zituen *skating* eran. «*Skating*-eko partean oso indartsu joan zen nire taldea, eta lehen hamar sailkatuak harrapatzen joan ginen lasterketa osoa, eta gero hori ordaindu egin nuen azkeneko zatian. Baina, azkenean, sekulako lasterketa izan da,

espero baino askoz hobea, eta 20 lehenengoetan sartzea oso ona da». Lortu duen emaitzak bere kirol ibilbide osoan egindako esfortzua erakusten duela gaineratu du tolosarrak. «Gainera, emaitzak ikusita, herrialde indartsuetako eskiatzaileekin nago borrokan, eta horrekin geratzen naiz».

Munduko Txapelketako hurrengo proba bihar bertan izango du Rojok, 15 kilometro *skating* modalitatean. Eta bere parte hartzea, Munduko Txapelketa honetan datorren igandean bukatuko da, klasiko eran egingo duen 50 kilometroko proba gogorarekin.

Maialen Muñoz 46.a izan da Espainiako Kros Txapelketan

Zirkuitu gogor bati egin behar izan diote aurre; Muñozentzat esperientzia «gazi-gozoa» izan da

Erredakzioa Ibarra

Lehen aldiz parte hartu du Maialen Muñoz atleta ibartarrak Espainiako Kros Txapelketan, eta 46. postua lortu du absolutu mailan, seigarren postua lortuz taldea EA Erekin. Tolosa CF-ko atletak azaldu duenez, esperientzia «gazi-gozoa» izan da.

Igandean jokatu zen proba, Getafen (Espainia), eta zirkuitu bati bost itzuli egin behar zizkion. Lehenengo bi itzulietan sentazio onekin hasi zen Muñoz, baina hirugarrenean tripako minekin eta barearekin hasi zen. «Hortik aurrera dezente sufritu nuen, eta ezin izan nuen hasierako erritmoan joan», esan du Muñozek. «Azkeneko bi itzulietan helburua bukatzea izan zen. Horregatik pixka bat gazi-gozoa izan zen sentazioa: alde batetik, talde bezala emaitza polita lortu dugulako, eta, bestalde, pertsonalki ez nintzelako hain gustura geratu egindako lasterketarekin».

Talde bezala seigarren gertzearekin «kontentu» daudela esan du Muñozek. «Taldekako lehen biak, Majida Maayouf [5.



Maialen Muñoz, Espainiako Kros Txapelketaren zirkuituan. ATARIA

izan zen] eta Elena Loyo [23. izan zen], oso maila altuko korrikalariak izanik, asko lagundu zigun postu hori lortzen».

Oso zirkuitu gogorarekin egin zuten topo atletek. Larunbatean iritsi ziren EA Eko taldekideak Getafera, eta zirkuitua ikusi ondoren, «beldur pixka bat» sartu zitzairen. «Nik nire esperientzi gabeziatik hitz egin dezaket, baina kros lasterketa bat baino gehiago trial lasterketa bateko zirkuitua zen, oso gogorra». Aldapa oso gogorrak zeuden, eta horietako batek %17ko batez bestekoa zuen. Horrelako aldapetan ez zuten entrenatu, bazekiten gogorra izango zela. Behin proba hori jokatu, Muñoz berriro ere pistako probetan zentratuko da.

Hilberriak eta urteurrenak



**Izaskun Sagredo
Artola**

*Urak dakarrena urak darama,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.*



TOLOSAN, 2021eko martxoaren 2an



**Jokin
Urdanpilleta
Goenaga**

Arin izan dakizula lurra.

Ibarrako ezker abertzalea.

IBARRAN, 2021eko martxoaren 2an



**Rosa Malen
Agirre Mujika**

*Zure argia ez da itzaliko gure bihotzean
zauden bitartean.*

Mila esker momentu hauetan eskaini diguzuen babesagatik

ALEGIAN, 2021eko martxoaren 2an



ASTEARTEA, 2021EKO MARTXOAK 2
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Azpiegiturak eskatu dituzte Bedaionako

Ehunka herritar elkartu ziren larunbatean Bedaion oinarritzko azpiegiturarik ez dutela salatu, eta konponbidea eskatzeko



Larunbatean herritar ugari elkartu ziren Bedaion bizi duten egoera salatzeko. ENERITZ MAIZ

Eneritz Maiz Tolosa

Bedaionko herritarrek deituta, protesta eguna izan zuten larunbatean, auzoan behar dituzten oinarritzko azpiegituren alde. Tolosako Trianguloa plazan ehunka herritar elkartu ziren *Landa eremuetako oinarritzko azpiegituren alde* zihoen pankartaren atzean. Adarren hotsak entzun ziren, eta baita herritarrek kantuan ere, pasa den astean sare sozialetatik zabaldu zuten eta oihartzun handia izan zuen *Egin*

kontu egin kontu, telefonorik ez daukagu abestia, hain justu. Modu horretan eskatu zituzten «telefono eta Internet zerbitzu egokiak».

Bedaiontarrez gain, inguruko herrietako bizilagunak ere elkartu ziren Trianguloan, eta bertatik, udaletxerako bidea hartu zuten guztiek pankartaren atzetik. Plaza Zaharrean jarraitu zuen protestak, bertan ere adarren doinuak edota abesti eta aldarrikapenak entzungai izan zirelarik.

Arazoa ez dela oraingoa diote. Azken bi urteetan etengabekoak dira bertan telefono zerbitzuarekin dituzten arazoak, eta otsailaren 7az geroztik telefono zerbitzurik gabe daudela 16 baserri-tan esan dute; «ondorioz, Bedaion gaudenean komunikatzeko arazoak ditugu». Tolosatik 17 kilometrorra egon eta inkomunikatuta egotea «oso larria» dela diote. «Bigarren edo hirugarren mailako herritar» sentitzen direla esan dute eta «agintarien utzikeria» salatzen dute.

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Fraisora eskolak antolatuta, Ohiko nekazaritza-ustiapena ekologiko bihurtzea ikastaroa, 15:30ean, Fraisoron.

Erakusketak

Ibarra. Sahara Libre zikloaren barruan, Mendebaldeko Sahara, emakumeen begirada kale erakusketa jarri dute. Javi Julioren muralak dira, herritarrek osatuak.

Tolosa. Jeiki Jeiki 2021erakusketa, Aranburun.

Tolosa. Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak, Topic-en.

Tolosa. Itzalpeko emakume euskaldunak, Aranburu jauregian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Hiri baratzea

15:00. Elkarrizketa

13:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. LAR eta Uxue, Nikotina&Little Martin Selekta taldeen kontzertua

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Goizeko magazina, Asier Imazek gidatuta.

15:00. Amalurra. Ingurumenari buruzko saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratien artean eginiko magazina.

20:00. Kantazgora. Musikarien proposamenekin osatutako saioa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro lasaia izango dugu. Goizean hodei batzuk agertuko diren arren, ostarte zabalak izango dira eta giro argi eta polita izango dugu. Arratsaldean hegoaldeko hodei trinkoagoak sartuko dira eta, nahiz eta, tantaren bat bota dezakeen, orokorrean ateri eutsiko dio. Haizea hego-ekialdetik zakar ibiliko da goizean. Arratsaldean, ahuldu egingo da, eta aldakorrago izango da. Tenperatura maximoak 17-19 graduan errendituko dira.



Bihar. Giro eguzkitsua izango dugu. Goizean goizetik hasi eta egun guztian zehar zeruan urdina nagusituko da. Soilik goi-hodeiren bat edo beste ikusiko dugu eta ez diote trabarik egingo eguzkiari. Haizeak hegotik ahul joko du eta tenperatura maximoak antzeko mantenduko dira, 17-19 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€

31€

45€

51€

Atarikideak

12€

23€

33€

38€

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez